


Euskal AEko industriak % 2,8ko hazkunde nominala izan zuen 2003ko ekitaldian

2003an eraikuntzak aurreko urteetako hazkundearekin jarraitu zuen eta %16tik gorako aurrerakada nabarmena lortu zuen

Euskal AEko industria-sektorearen 2003ko bilakaerak, aurreko bi ekitaldietakoak bezala, urteko aldakuntza-tasa apalak izan zituen, balio erantsiaren %2,8ko hazkunde nominala, hain zuzen ere. Hala ere, azken ekitaldi horretan zortzi hamarreneko azelerazio txikia nabaritu zen, aurreko urteko hazkundearen aldean (%2,0), Eustaten datuen arabera.

Industriako enplegua ere %1,2 hazi zen 2003an, eta 3.000 enplegu garbi sortu ziren. 1994an industriak 192.274 lagun enplegatu zituen eta 2003an, bederatzi urte geroago, zifra hori 248.922 langilera iritsi zen; beraz, 10 urtean 56.000 enplegu pasa gehiago.

Industria-sektorearen bilakaera 1997-2003



Iturria: Eustat

Honakoak dira 2003ko industria-bilakaeraren alderdirik esanguratsuenak:

- Balio erantsiaren urteko hazkunderik handieneko azpisektoreak honakoak izan ziren: *petrolio*a *fintzea* (%36,1), *energia elektrikoa*, *gasa eta ura* (%9,0), *garraio-materiala* (%8,8), *ez-metalezko industria* (%8,0), *elikagai-industria* (%5,9), *kimika-industria* (%5,6), *material elektrikoa* (%3,3) eta *kautxua eta plastikoa* (%3,2).

- Bost azpisektorek bilakaera negatiboa izan zuten eta aurreko urtean baino balio erantsi txikiagoa sortu zuten: *ehungintza eta jantzigintza* (%-16,7), *larruaren eta oinetakoen industria* (%-15,6), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-12,7), *zurgintza* (%-6,3) eta *papera, edizioa eta arte grafikoak* (%-1,6) azpisektoreek.

Industriako aldagai nagusiak. Euskal AE.	Balioa: €ak, milakotan		
	Industria		
	2002	2003	Δ %
Uneko prezioak			
Landunak	246.063	248.922	1,2
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	13.008.214	13.371.649	2,8
Ustiapeneko soberakin gordina	5.610.202	5.563.149	-0,8
Egindako inbertsioak	3.211.667	2.717.879	-15,4
Amortizazioak	1.994.159	2.158.152	8,2
Negozio-zifrak	42.393.031	43.768.410	3,2
Bestelako sarrerak	2.253.415	1.909.499	-15,3
Ustiapen-kontsumoak	23.445.870	23.975.359	2,3
Kanpo-zerbitzuak	5.937.657	6.153.960	3,6
Langileria-gastuak	7.398.012	7.808.500	5,5
Bestelako gastuak	1.940.165	2.010.905	3,6
Zergen aurreko emaitzak	3.213.405	2.904.928	-9,6
Cash-Flow-a	5.207.564	5.063.080	-2,8

Iturria: Eustat

- Urteko enplegu-sorkuntzako tasarik dinamikoenak honako azpisektoreek lortu zituzten: *garraio-materiala* (%4,7) eta *papera, edizioa eta grafikoak* (%4,4) azpisektoreek.

- Aurreko urtearen aldean enplegu-maila murriztu zutenak, aldiz, *energia elektrikoa, gasa eta ura* (%-5,7) eta *ehungintza eta jantzigintza* (%-3,5) azpisektoreak izan ziren.

- 2003an nabarmen murriztu ziren inbertsioak, %15,4ra iritsi arte.

- Erabilitako ibilgetuaren birjarpenera bideratutako amortizazioek urteko %8,2ko hazkundea izan zuten.

- Ustiapeneko soberakin gordina murriztu egin zen hirugarren urtez jarraian: %-0,6 2001ean, %-1,2 2002an eta %-0,8 2003an.

- Langileria-kostuak, aldiz, %5,5 hazi ziren, aurreko urtean baino ia puntu bat gehiago.

- Zergen aurreko emaitzek %9,6ko beherakada agertu zuten.

- Cash-flow-a %2,8 murriztu zen aurreko urtearen aldean, cash-flow-aren %42,7 suposatu zuten amortizazioen (%8,2) hazkunde nabarmena izan zen arren.

2002an ez bezala, ekitaldi horretako industriako hazkunde-tasarik handiena Bizkaiak (%3,5) lortu zuen. Arabak (%2,6) eta Gipuzkoak (%2,1) hazkunde-tasa neurritsuagoak izan zituzten, Euskal AEko batez bestekoaren azpitik (%2,8).

Eraikuntzaren sektoreak %16,7ko hazkunde nominala lortu zuen 2003an

Eraikuntzaren sektoreak %16,7ko hazkunde nominala izan zuen eta bere balio erantsiaren gehikuntza-tasa altuak markatzen jarraitu zuen. 2001ean %16,6ko igoera izan zuen, 2002an %10,3koa eta 2003an %16,7koa.

Erakuntzaren aldagai nagusiak. Euskal AE.	Balioa: €ak, milakotan		
	Eraikuntza		
Uneko prezioak	2002	2003	Δ %
Landunak	81.118	86.353	6,5
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	3.223.562	3.761.313	16,7
Ustiapeneko soberakin gordina	1.055.865	1.288.112	22,0
Egindako inbertsioak	204.052	319.864	56,8
Amortizazioak	159.253	199.841	25,5
Negozio-zifrak	10.341.805	12.346.369	19,4
Bestelako sarrerak	878.514	502.186	-42,8
Ustiapen-kontsumoak	6.563.835	7.483.489	14,0
Kanpo-zerbitzuak	1.159.943	1.315.450	13,4
Lagileria-gastuak	2.167.697	2.473.201	14,1
Bestelako gastuak	296.591	307.667	3,7
Zergen aurreko emaitzak	669.375	930.985	39,1
Cash-Flow-a	828.628	1.130.826	36,5

Iturria: Eustat

Sektorean enplegatutako pertsonalak %7,0ko bilakaera positiboa izan zuen 2002an eta urtebete beranduago %6,5 hazi eta 81.118 landunen zifrara iritsi zen, 2003ko ekitaldian 5.000 enplegu garbitik gora sortuz.

2003an eraikuntzaren sektoreak izan zuen ibilbidearen beste elementu azpimarragarri batzuk honakoak izan ziren:

- Ustiapeneko soberakin gordina %22 hazi zen 2003an, urtebete lehenagoko urteko %5,3ko tasaren aldean.
- Zergen aurreko emaitzek %39,1eko hazkunde nabarmena izan zuten. Aipatzekoa da 2002an %0,3 murriztu zirela.
- Beraz, Cash-flow-ak %36,5eko gehikuntza izan zuen, emaitzen bilakaera positiboari esker.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula

Tlf: +34-945 017 509 Fax: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp